



## Eman hegoak euskarari



### Harkaitz Cano labirintoan: gaur egungo euskal literatur paisaia

Aiora Sampedro Alegriak euskal idazleari buruzko liburua aurkeztu du Durangoko Azokan

OIHANE CALVO UGARTE

**D**urangoko Azokako 58. edizio honetan, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) 20 lan berri baino gehiago aurkeztu ditu. Horien artean, Aiora Sampedro Alegriak, UPV/EHUko irakaslea eta Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketetan doktorea, Harkaitz Canori buruz garatu duena aurkituko dugu.

Harkaitz Cano (Lasarte, 1975) azken urteetan euskal literaturan gailendu den idazle entzutetsu eta laudatuenetakoa da. 48 urte dituela, obra zabala bezain anitza osatu du, bere izaera polifazetiko agerian utziz. Eleberrian, poesian eta kontakizunean, nagusiki, aritu da egile gipuzkoarra, baina beste literatura genero batzuetan ere —saiakeran, Haur eta Gaz-

te Literaturan, antzerkian, komikian— sarritan ibili izan da.

Badira 29 urte bere lehen argitalpena, 'Kea behelainopean bezala' poema liburua kaleratu zuenetik; geroztik, hogeitik gora dira argitaratu dituen liburuak. Canoren eginkizun artistikoaren ibilbide oparo horri buruzkoak jaso ditu Sampedro Alegriak aurkeztutako bere lehen liburuan: 'Harkaitz Cano eta gaur egungo euskal literatur sistema'.

Argitalpen berri honen harira, ez da garai berriko euskal letretako izen nagusien gainean gauzatzen den lehen liburua, aurretik beste asko plazaratu baitira. Aitzitik, Sampedro Alegriak dakarren ikuspegia erabat berria da, Harkaitz Canoren lana arakatzeko orduan literaturaren

soziologiaren aldetik egiten baitu.

Hartara, jada ez da lanaren eginkizuna edo egitura ikertu, formaren azterketa sortu. Helburu nagusia prozesu historikoak deskribatzean datza, egilearen lana bere bidean ikusi, nola gorputzen den zehaztu, inguruarekiko elkarriketan nola joan den handitzen eta unez unez osatzen ikertu. Harkaitz Canoren figura, idazle gazte eta ezezagun izate-tik, gaur egungo euskal panoramaren erdigunera nola heldu den azaltzen du, alegia. Idazlearen bilakaera hori argitu nahian, Sampedro Alegriak bi zutabe nagusitan banatu du lana.

Alde batetik, Canoren lana eta ibilbide arrakastatsua ulertzeko bide modura, inoiz egin den XXI.



Harkaitz Cano. I. PÉREZ

mendeko euskal paisaia literario eta kulturalaren azterketa zehatz eta iradokorra egin du, euskal letretako panorama horretan parte hartzen duten elementuen deskribapen xehea eginez.

Horrela, datuak erabiliz, egungo panorama literarioari buruzko galdera askori erantzuna aurkitzera eramango du irakurlea, gizararen argazki naturala lortuz. Zenbat idazle ari ote dira jardunean? Horietatik zenbat ote dira emakumeak eta zenbat gizon-nezkoak? Zer lurralde historiko idazleak gailentzen dira? Zein

da gehien ekoizten den generoa?

Aiora Sampedrok galdera horiek eta beste asko izan ditu aztergai bere ikerlanean, eta era oso argi eta ulerterrazean ihardesten ditu: «578 idazle dira jardunean une honetan euskal literatura sisteman, horietatik 414 dira gizon-nezkoak» (39), «urtetan zehar Gipuzkoa izan bada erdigune kulturala ordezkatu duen lurraldea, oraindik ere nagusia izaten jarraitzen du» (48), «azken bi hamarkada hauetan mantendu den generoa saiakerarena da» (53).

Bestetik, aurretik deskribatutako euskal literatura paisaia horretan Canoren lana nola kokatzen den adierazi du, haren idazle eginkizunean, euskal paisaia literarioko gainerako idazleekin eta beste panorama literario batzuekin izandako hartu-emanen ikerketa burutuz.

Argi dago Canok euskal literaturaren labirinto horretan murgiltzea eta ez galtzea lortu duela, eta hala erakutsi du Sampedro Alegriak. Aditu horrek, bere ekoizpen literarioa aztertzeaz gain, bere irudiaren eboluzio historikoari erreparatu dio, Canoren lana eta horren arrakasta irakurleoi gerturatzen dituelarik.

### Makina bat gizaki

JON MARTIN-ETXEBESTE

Eszenatoki futurista batean kokaturiko hainbat ipuin bildu ditu Juan Luis Zabalak. Klima larrialdia zauritutako planetan adimen artifizialak agintea bereganatu eta orain Hura da erabakien kontrola duena. Errealitate areagotua entretenimendu, osasuna kontrolpean, gizakien bizimodua erosoagoa da orain, baina ulertu (eta, beraz, kuestionatu) ezin dituen erabakiak betetzera derri-gorturik daude. Teknologia gizateriaren salbazio eta kondena izango dela aurreikusten dute kontakizunak eta zenbait gizakik (protagonistek eta irakurleek) orden mundial berriaren pean sentitutako duten itolarria da gai nagusia. Teknologiaren aurkako erresistentzia itxaropenaren hazia da liburu honetan. Naturari gorazarre egiten zaio eta gizakia gizaki egiten duen esentzia esploratzen. Dilema etikoak,

etorkizunekoak zein betikoak, lehen planora ekartzen ditu idazleak. Pandemiaren kudeaketarekin estuki lotutako liburuen artean dago eta loturak ezar daitezke Ura saltoka, Pantailen garaipena eta Berriz zentauro bezalakoekiko.

15 ipuineko bilduma da Zabalerana; gehienak, laburrak. Ironia handiz jorrazten ditu gizateria "salbatuko" duten elementuak (droideak, futbola, txertoak...). Ipuinik luzeena 'Sinbiosia Marten' izenekoa da (9 kapitulutan kontatutako ipuina): Martitzen kokatutako euskaldun baten gogoetak dira kontakatarako aitzakia, baina haren helburua kultur hege-

monikoen eta periferikoen arteko igurtziez gogoeta eragitea da: galtzen ari den hizkuntzaren, kulturaren eta mundu ikuskeraren balioa goratzea, bertakoa denaren eta unibertsalaren arteko frikzioak bistartzea. Zientzia fikzioa errealitateaz hausnartzeko baliabide bihur daitekeela frogatzen du Zabalak liburu honen bidez, eta ipuin liburu bezain saiakera liburu moduan sailkatzeko aukera ematen du. Jon Martin-Etxebeste



**DIMISIOA**  
JUAN LUIS ZABALA  
Susa, 160 orr,  
17,50 euro

### Eguberri zoroak

ARANTXA URRETABIZKAIA



**A**bantaila bat badu behintzat zahartzeak, gauza asko bizitzeko aukera eman dizula bizitzak, zerbait ikasteko denbora gehiago izan duzula. Beste kontu bat da nola baliatzen duen batek denbora hori, zer eta zenbat ikasteko erabili duen gutako baikoitzak denbora hori.

Duela hiru laurden mende Eguberriek zuten garrantzia eta gaurko egunean dutenak ez dute zerikusirik, aldera daitezke, ez, ordea, parekatu. Nire bizitzan zehar, haurtzarotik zahartzarora, norabide bera izan du beti kontuak, gorakoa. Agian une batean pentsatzen duzu jo dugula gailurra eta ez, gailurra ez da sekula bukatzen, ustez bertara heldutakoan ikusten duzu beste aldapa bat dagoela.

Gure ama zenak kontaktzen zigun bere

haurtzaroan, Erregeek (ez zuen oraindik Olentzerok ardura hori jaso) intxaur mordoxka bat eta agian laranja bat ekartzen ziotela, jostailurik ez. Guri tokatu zitzaigunean, gehienez jota ere jostailu bana eta batzuetan jostailu bakarra birentzat eta eskuz idatzitako ohar bat, esanez hurrengo urtea hobe izango zela. Urte hobe hori, ordea, ez zen inoiz heldu.

Berdin dekorazioari buruz. Gaur ez dago bazterrik, ez bulego, ez kale, ez denda, Eguberrietan modu berezian apaintzen ez denik. Ikuskizun hutsa lireratek festa hauek, baldin eta beste helburu nagusiagoa ez balute: erosketena. Urtea erosten hasi eta bukatuko dugu, gabon kanta eta argiz inguratuak eta, gainera, gorritz moztortuak.

Oraingoz azken heldu zaigun moda janzkerarena da. Egunotan jendea moztortu egiten da, batzuk baserritarrez, beste batzuk, nola ez, Estatu Batuetatik datorren joera bati esker, Bizarzurirekin lotzen diren gailuekin, elur-oroinen adarrak, txanoak ... Eta, gero eta gehiago festa haue-tan soilik janzten diren jertseak, gorriak, noski. Inguratuak gaude, ihesbiderik gabe.

Mesedez eta faborez, jo dezala behingoz goia eromen honek.

### SALDUENAK

FIKZIOA

**1 Oso latza izan da**  
Xabier Mendiguren. Elkar

**2 Maitasun kapitala**  
Karmele Jaio. Elkar.

**3 Miñan**  
Amets Arzalluz/Ibrahima Balde. Susa.

**4 Kolosala izango da**  
Joseba Sarrionandia. Txalaparta.

EZ FIKZIOA

**1 Alex Txikon, manaslu neguan**  
Alex Txikon. Susa

**2 Juana**  
Jon Artano. Elkar

**3 Feminismo zuriaren aurka**  
Rafia Zakaria. Elkar.

**4 Neraben Garrasia**  
T. Lazkano/ M. Ormazabal. Alberdania.